

Euskal AEko gizarte-babeseko osoko gastua %8,8 hazi zen 2008an


Biztanle bakoitzeko osoko gastua 6.320 euro izan zen 2008an, aurreko urtean baino %8 gehiago

Gizarte Babeseko Estatistika Integratuen Europako Sistemaren metodologia jarraituaz Eustatek egindako datuen arabera, Euskal AEn 2008an gizarte-babeserako erabilitako baliabideen osoko bolumena 13.622 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %8,8 handiagoa.

Administrazioko gastuak alde batera utzita, gizarte-laguntzen balioa 13.323 milioi eurora iritsi zen 2008an, hau da, 2000. urteaz geroztik urteko %7,7 hazi da urteko tasa metatuan.

Funtzioen araberako gizarte-prestazioen gastua aztertuz gero ikusten denez, gehien hazi direnak Etxebizitza eta Familia eta Seme-alabak dira. Etxebizitzari dagokionez, 2007arekiko %54,2 hazi zen eta Familia eta Seme-alabak, aldiz, %20,6; 2008an 368 milioiko osoko gastua egon zen. Hala ere, gizarte-babesean gasturik txikieneko bi funtzioak dira. Zahartasuna funtzioa da gasturik handienekoa –gastu osoaren %38,8- eta 5.170 milioi euro izan zen, hau da, 64 urtez gorako pertsona bakoitzeko 12.762 euro. Funtzio honetan pentsioez gain ostatatzeke eta etxeko arretarako laguntza prestazioak sartzen dira. 2007arekiko %6,9 hazi zen. Bigarren funtziorik garrantzitsuena Gaixotasuna/Osasun-laguntza funtzioa da eta hor sartzen dira aldi baterako ezintasunarekiko prestazioak eta osasun prestazioak. 2008an 4.085 milioi eurora iritsi zen eta aurreko urtearekiko %9,5 hazi zen.

1. grafikoa. Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa, funtzioen arabera. 2008



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Baliaezintasun eta Bizi iraupen funtzioen gastuak 921 eta 1.349 milioi eurokoak izan ziren, hurrenez hurren, eta hazkunderik txikiena izan zutenak ere badira, %6 baino txikiagoa.

Langabeziaren funtzioa 1.026 milioi eurora iritsi zen 2008an; aurreko urtearekiko %16,8 hazi zen. Langabetu bakoitzeko zenbatekoa 12.137 eurokoa izan zen eta aurreko ekitaldian 11.617koa izan zen.

Gizarte-bazterketaren funtzioak ere hazkunde handia izan zuen, urteko %14,0koa, eta 2008an 345,6 milioi eurora iritsi zen.

Gizarte-babeseko gastuak egiten dituzten **erakundeen unitateei** dagokienez, gizarte prestazioko gastuaren % 60 Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuko Administrazioak egiten du, 2008an 8.164 milioi euro izan ziren, aurreko urtean baino %7,5 gehiago. Euskal Administrazioek gastuaren %32,2 egin zuten 2008an, hau da, aurreko urtearekiko %12,5 hazi zen.

1. taula: Erakundeetako unitate taldearen eta urtearen arabera gastua (milioi €). 2005-2008

	2005	2006	2007	2008	Aldakuntza-tasa %		
					2006/05	2007/06	2008/07
Gizarte Segurantzaren sistema eta Estatuko administrazioa	6.634,3	7.071,7	7.591,7	8.164,2	6,6	7,4	7,5
Euskal administrazioak	3.218,5	3.538,0	3.904,9	4.392,6	9,9	10,4	12,5
BGAE	260,9	296,9	324,7	343,5	13,8	9,4	5,8
Beste erakunde pribatu batzuk	762,6	687,8	695,7	721,3	-9,8	1,1	3,7
Gizarte-babeseko gastua, guztira	10.876,3	11.594,4	12.517,0	13.621,6	6,6	8,0	8,8

Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Adierazle nagusien azterketa konparatuan, Europar Batasunerako datuetan mugak daudenez, 2007ko alderaketa egin beharra daukagu, Eurostatek argitaratutako azkeneko urtea hori baita.

Gizarte-babeseko ahaleginaren adierazlea, hau da, BPGren ehunekotan gizarte-babesean egiten den gastua, Euskal AEn %18,8koa izan zen 2007an. Ehuneko hau Europar Batasunekoaren (EB-27) urte horretako ehunekoaren azpitik dago (%26,2), baita Espainiakoaren azpitik ere (%21). 2007ra arte aztertutako urteetan Euskal AEko BPGn egondako hazkunde handiek, %8 ingurukoek, BGGarekiko ahaleginaren adierazlearen hazkundera mugatu egin dute.

Baina biztanleko gastuaren adierazlea aztertuz gero, 2007an Euskal AEk biztanleko egindako gizarte-babeseko gastua 6.559koa izan zen erorketa ahalmenaren parekotasunaren arabera. Hori EB-27ko batez bestekoan dago, 6.522koa baitzuen, eta Espainiako gastuaren gainetik, 5.526koa izan baitzen.

2000-2008 aldian gizarte-babes arloan BPGarekiko egindako ahalegina ehuneko 2 puntu hazi zen; 2008an gizarte-babeseko gastua Euskal AEko BPGaren % 20,1 izan zen. BPGaren hazkundera eutsita eta gastuaren hazkundera mantenduta 2008an ahaleginaren adierazlea sustatu egin zen, baina Espainia gainetik zegoen 2008an %22,7rekin.

2. taula: Gizarte-babesaren datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2000-2008

						Aldakuntza-tasa %			
	2000	2005	2006	2007	2008	2006/05	2007/06	2008/07	Urteko batez besteko
									2008/2000
GIZARTE-BABESEKO GASTUA, GUZTIRA									
Miloi eurotan	7.518,5	10.876,3	11.594,4	12.517,0	13.621,6	6,6	8,0	8,8	7,7
Merkatu prezioko BPGaren %an	18,05	18,98	18,77	18,84	20,05	-0,21*	0,07*	1,21*	2,0*
Eurotan, biztanleko	3.616	5.155	5.461	5.851	6.320	5,9	7,1	8,0	7,2
Biztanleko EAP	4.284	5.645	6.025	6.559	:	6,7	8,9	:	:
FUNTZIOEN ARABERAKO GIZARTE- PRESTAZIOETAKO GASTUA (miloi eurotan)									
GUZTIRA	7.362,4	10.651,0	11.348,4	12.245,1	13.322,5	6,5	7,9	8,8	7,7
Gaixotasuna / Osasun-laguntza	2.169,6	3.226,7	3.433,4	3.732,5	4.085,4	6,4	8,7	9,5	8,2
Baliaezintasuna	707,7	756,8	806,9	869,9	921,4	6,6	7,8	5,9	3,4
Zahartasuna	3.413,5	4.211,9	4.461,9	4.835,9	5.169,7	5,9	8,4	6,9	5,3
Bizirik irautea	253,1	1.141,4	1.203,4	1.283,1	1.349,2	5,4	6,6	5,2	23,3
Familia / Seme-alabak	110,2	201,6	249,7	305,2	368,0	23,8	22,2	20,6	16,3
Langabezia	614,0	826,0	867,4	878,6	1.026,6	5,0	1,3	16,8	6,6
Etxebizitza	4,6	26,8	34,0	36,8	56,8	27,1	8,3	54,2	37,0
Gizarte-bazterketa	89,8	259,8	291,7	303,1	345,6	12,3	3,9	14,0	18,3
ADIERAZLEAK (eurotan)									
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko	3.541	5.048	5.345	5.724	6.181	5,9	7,1	8,0	7,2
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko eta EAPn	4.195	5.528	5.897	6.417	:	6,7	8,8	:	:
"Gaixotasun / osasun-laguntzaren" funtzioan egindako gastua, biztanle bakoitzeko	1.043	1.529	1.617	1.745	1.895	5,7	7,9	8,6	7,7
"Zahartasunaren" funtzioan egindako gastua, 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko	9.749	10.849	11.328	12.129	12.762	4,4	7,1	5,2	3,4
"Langabeziaren" funtzioan egindako gastua, erregistratuta dagoen langabetu bakoitzeko	7.897	9.740	10.737	11.617	12.137	10,2	8,2	4,5	5,5
Merkatuko prezioko BPG, (miloi eurotan)	41.647,3	57.289,1	61.760,6	66.427,5	67.924,5	7,8	7,6	2,3	6,3
Biztanleria	2.079.219	2.109.890	2.123.184	2.139.370	2.155.349	0,6	0,8	0,7	0,5

(:) Ez dago

(*) aldea ehuneko puntuetan

Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

OHAR METODOLOGIKOA: Gizarte-babesaren kontua SEEPROS 2008 eskuliburuaren errebisioaren arabera egin da eta ondorioz, funtzioak sailkatzeko metodologia aldatu da, prestazioak zuzenbide zergatiaren arabera sailkatzeko eskatzen baitu, hartzailearen adina dena delakoa izanda. Ondorioz, Zahartasuna eta Bizi iraupena funtzioetan aldaketa egon da.

Gizarte-babesaren kontuari buruzko informazio gehiagorako, sartu ohar metodologikoan:

http://www.eustat.es/document/datos/Nota%20met_SEEPROS08_c.pdf

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako: Jose Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko gizarte-babesaren kontuari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko gizarte-babesaren kontuari buruzko datu-bankua